

## Euskal AEko esportazioak %7 gutxitu ziren 2015eko lehen hiruhilekoan

### Ondasun ez-energetikoenak, %0,9 gehitu

Euskal AEko **ondasun esportazioak** %7 gutxitu ziren 2015eko lehen hiruhilekoan, Eustaten arabera. Guztira, 4.996 milioi euro; iaz, 5.372. Ondasun ez-energetikoenak bakarrik aintzat hartuz, %+0,9.

**Ondasun-inportazioak** %11,3 gutxitu ziren, 3.828 milioira. Inportazio energetikoak bakarrik hartuz, jaitsiera (%-43,1) handiagoa da, 964 milioira. Ez-energetikoak, %9,2 gehitu.

### Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2015, lehenengo hiruhilekoa


|                                     | ESPORTAZIOAK       |                  |              | INPORTAZIOAK       |                  |              |
|-------------------------------------|--------------------|------------------|--------------|--------------------|------------------|--------------|
|                                     | Urtarrilla-Martxoa |                  |              | Urtarrilla-Martxoa |                  |              |
|                                     | 2014               | 2015             | Δ %          | 2014               | 2015             | Δ %          |
| <b>EUSKAL AE</b>                    |                    |                  |              |                    |                  |              |
| <b>GUZTIRA</b>                      | <b>5.371.983</b>   | <b>4.995.932</b> | <b>-7,0</b>  | <b>4.316.493</b>   | <b>3.827.605</b> | <b>-11,3</b> |
| PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK | 710.825            | 294.605          | -58,6        | 1.693.549          | 964.132          | -43,1        |
| PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK            | 4.661.158          | 4.701.327        | 0,9          | 2.622.944          | 2.863.473        | 9,2          |
| <b>ARABA / ÁLAVA</b>                |                    |                  |              |                    |                  |              |
| <b>GUZTIRA</b>                      | <b>1.416.243</b>   | <b>1.326.426</b> | <b>-6,3</b>  | <b>648.192</b>     | <b>713.200</b>   | <b>10,0</b>  |
| PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK | 312                | 226              | -27,4        | 1.179              | 1.020            | -13,5        |
| PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK            | 1.415.931          | 1.326.200        | -6,3         | 647.013            | 712.180          | 10,1         |
| <b>BIZKAIA</b>                      |                    |                  |              |                    |                  |              |
| <b>GUZTIRA</b>                      | <b>2.344.188</b>   | <b>1.983.730</b> | <b>-15,4</b> | <b>2.889.898</b>   | <b>2.237.497</b> | <b>-22,6</b> |
| PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK | 709.062            | 293.290          | -58,6        | 1.691.834          | 960.948          | -43,2        |
| PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK            | 1.635.127          | 1.690.440        | 3,4          | 1.198.064          | 1.276.549        | 6,6          |
| <b>GIPUZKOA</b>                     |                    |                  |              |                    |                  |              |
| <b>GUZTIRA</b>                      | <b>1.611.552</b>   | <b>1.685.777</b> | <b>4,6</b>   | <b>778.402</b>     | <b>876.908</b>   | <b>12,7</b>  |
| PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK | 1.452              | 1.089            | -25,0        | 535                | 2.164            | 304,1        |
| PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK            | 1.610.100          | 1.684.687        | 4,6          | 777.867            | 874.745          | 12,5         |

**Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)**

**Saldo** garbia positiboa izan da: 1.168 milioiko **superabita**. Esportazioen inportazioen gaineko estaldura tasa, %130,5. Produktu energetikoak bazter utzita, **merkataritza saldo ez-energetikoak** 1.838 milioiko superabita du; produktu hauen estaldura-tasa, %164,2.

**Europar Batasunerako esportazioak** %6 gutxitu eta esportatutakoaren %63,9 dira; esportazio ez-energetikoak orain urtebete bezalatsu daude, beraz jaitsiera esportazio energetikoei egotzi behar zaie. Esportazio-jaitsiera nagusiak: Herbeheretara (%-61,4), Belgikara (%-19,1); askoz jaitsiera apalagoak Frantziara (%-1,6), Alemaniara (%-1,9) eta Erresuma Batura (%-0,5)

egindakoetan. Italiara eginiko esportazioak %38,1 gehitu ziren. EBtik kanpora eginiko esportazioetan, azpimarratzekoak: Brasilera (%-46), Txinara (%-19,7), Mexikora (%+18,3).



Europar Batasunetiko **inportazioak** %4,7 gutxitu dira, batez ere Estonia eta Letoniatik eginiko inportazio energetikoen beherakadagatik. Inportazio energetikoak Erresuma Batutik nabarmen gehitu dira; hiruileko honetan handik egindakoen erdia dira. Oro har estatu nagusietatik eginiko inportazioak gehitu egin dira: Erresuma Batutik (%80,2), Irlandatik (%72,6), Herbehereetatik (%42), Portugaldik (%26,4), Frantziatik (%11,3). Munduko gainerakoan nabarmentzen dira Errusiatik (%-67,6), Mexikotik (%-51,1) eta Estatu Batuetatik eginiko inportazioak (%-23,6) denak energetikoak. Txinatik egindako inportazio-hazkundera (%30,1) aipagarria da; hiruileko honetan eta EBtik kanpo, handik egin ditugu inportaziorik gehien.


**Muga-zergen sekzioen arabera**, esportazioez, *Produktu Mineralak* (%-56,8) eta *Garraio Materiala* (%-6,1) aipatu behar. Hazkunderak: *Material elektrikoa* (%8,1), *Metalak eta beren manufakturak* (%7,4). Hazkunderak inportazioetan: *Produktu kimikoak* (%23), *Garraio materiala* (%21,5), *Material elektrikoa* (%12,8). *Produktu mineralenak* %-41,9.

**Arabari** izan da esportazio jaitsierarik handiena (%-6,3), batez ere *Material elektrikoagatik* (%-18,4) eta *Koipe eta olioengatik* (%-79,5). *Plastikoak eta kautxua* bakarrik gehitu dira (%23). Arabako inportazioak %10 gehitu dira, *Garraio materialagatik* (%33,6) eta *Plastiko eta kautxuagatik* (%22,7).

**Bizkaiko** esportazioak %15,4 gutxitu ziren, *Produktu mineralengatik* (%-57,6) eta *Garraio-materialagatik* (%-17). Hazkundeak: *Material elektrikoa* (%28,3), *Metalak eta beren manufakturak* (%12,6). Bizkaiko inportazioak %22,6 gutxitu dira, *Produktu mineralengatik* (%-42,3). *Produktu kimikoenak* %25,9 gehitu.

**Gipuzkoan** bakarrik gehitu dira (%4,6) esportazioak. Sekzio garrantzitsuenak: *Garraio materiala* (%7,3), *Material elektrikoa* (%4,9), *Metalak eta beren manufakturak* (%10,7). Gipuzkoako inportazioak %12,7 gehitu dira. Sekzio garrantzitsuenak: *Material elektrikoa* (%21,8), *Metalak eta beren manufakturak* (%5,5).

**Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. (Milioi euro)**



#### Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE). Prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Kanpo merkataritzaren estatistiken gaineko datu-bankua